



**Gatikako udala**  
Bizkaia

**2011ko abuztuaren 18a**  
**EZ OHIKO OSOKO BILKURA**

**DEIALDIA: LEHENA**  
**HASIERA ORDUA: 19.30**  
**AMAIERA ORDUA: 19.50**

**Bertaratutakoak:**

- 1- Jesus Maria Fullaondo Alzibar
- 2- Leixuri Arrizabalaga Arruza
- 3- Maite Lekanda Bilbao
- 4- Unai Arrizabalaga Urrutia
- 5- Miguel Angel Larrazabal Zurbanobeascoechea
- 6- Unai Arruza Elorduy
- 7- Jon Ugutz Rotaetxe Arrizabalaga
- 8- Vanesa Alvarez Zorrilla
- 9- Gotzon Arrieta Rementeria

Idazkaria: Elena M. Gonzalez.

**Aztergaiak:**

**1.- Udal Korporazioaren ordezkarien izendapena.**

PNV ren proposamena:

“ Udalak parte hartzen duen foro, elkarte, konsortzio eta mankomunitateetan ordezkari, eta euren ordezkoak, hurrengoak izango dira:



## Gatikako udala

Bizkaia

- EUDEL. Titularra: Jesús M. Fullaondo Alzibar jauna. Ordezkoa: Unai Arrizabalaga Urrutia jauna.
- EUSKAL FONDOA. Titularra: Mikel Aingeru Larrazabal jauna (GTI). Ordezkoa: Unai Arruza jauna (GTI).
- UEMA. Titularrak: Leixuri Arrizabalaga Arruza anderea eta BILDUKo ordezkari bat. Ordezkoak: Maite Lekanda Bilbao anderea eta BILDUKo ordezeko bat.
- JATA-ONDO. Titularra: Jesus M. Fullaondo Alzibar jauna. Ordezkoa: Unai Arruza jauna (GTI).
- GATIKAKO HERRI IKASTETXEKO ESKOLA KONTZEILUA. Titularra: Leixuri Arrizabalaga Arruza anderea. Ordezkoa: Maite Lekanda Bilbao anderea.
- BILBAO BIZKAIA UR PATZUERGOA. Titularra: Jesus M. Fullaondo Alzibar jauna. Ordezkoa: Unai Arrizabalaga Urrutia jauna.
- URIBE-BUTROEKO ZERBITZU MANKOMUNITATEA. Titularrak: Jesús M. Fullaondo Alzibar jauna eta Ugutz Rotaetxe jauna (GTI). Ordezkoak: Unai Arrizabalaga Urrutia jauna eta Unai Arruza jauna (GTI).
- HAURRESKOLA PATZUERGOA. Titularra: Leixuri Arrizabalaga Arruza anderea. Ordezkoa: BILDUKo ordezeko bat.

Bilduk banaketa justuagoa proposatzen du, plenoko ordezkartzaren arabera. GTIk esan du beraien proposamena PNVren porposamenaren barruan jasota gelditzen dela.

Bozkatu egiten da PNVren proposamena: GTIk baiezkoa botoa ematen du (3 boto); PNVk baiezko botoa ematen du (4 boto); BILDUK ezezko botoa ematen du (2 boto). Beraz, onartuta gelditzen da.



## Gatikako udala

Bizkaia

### 2.- Informazio batzordeak.

PNV-ren proposamena:

“Kontutan hartu BILDUren proposamena “Nekazaritza” arloa sarturik OBRA ETA ZERBITZU, GARRAIO ETA LANBIDE ARLOAN, haundituta “Abeltzaintza”rekin.

Kontutan hartu, ere bai, BILDUren proposamena “Herritarren Parte-Hartzea” arloa sarturik INGURUGIRO, OSASUN ETA KONTSUMO, TOKI AGENDA 21, GAZTERIA ETA KIROL ARLOAN.

Ez kontutan hartu BILDUren proposamena “Etxebizitza” arloa, zergaitik uste dogulako HIRIGINTZA hitzan badagoela konzeptu hori sartuta.

Beraz, bi kaltetutako tokiak geratzen dira:

- OBRA ETA ZERBITZU, GARRAIO, LANBIDE, NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA arloa.
- INGURUGIRO, OSASUN ETA KONTSUMO, GAZTERIA, KIROL, TOKI AGENDA 21 ETA HERRITARREN PARTE-HARTZE arloa.”

PNVren proposamena bozkatu eta gero, aho batez onartu da (9 boto baizkoak).

BILDU esaten du beraien proposamenatik ez dela kontutan hartu 3.puntua (Herriko Talde desberdinek parte hartu ahal izatea). Alkateak esaten die forma eman beharko zeiola.

Vanesak esaten du gaizki ulertu dela beraien proposamena. Azkenengo 2 puntuak ez direlako kontutan hartu. Alkateak esaten dio mekanismoak jakin beharko direla; landuko direla beste batzordeetan.



## Gatikako udala

Bizkaia

(Hauxe dio Bilduren proposamenak:

### "Informazio-batzordeak

- *Lau batzorde handi eratzearen proposamenaren aurrean, BILDUK hau proposatzen du:*

*-Batzorde horietako batean "nekazaritza" arloa sortzea. Gatika bezalako herri batean gai hau lantzea beharrezkotzat jotzen dugu.*

*-Lehenengo batzordean "etxebizitza" arloa gehitzea. Guk uste dugu argiago geratzen dela "hirigintza eta etxebizitza" jasotzen baditugu. Etxebizitza arloari duen garrantzia eman behar diogu.*

*-Beste batzorde batean **Parte-Hartzerako arloa sortzea**. Azken arlo honen **helburua udal proiektu eta erabakien informazioa herritarrei luzatzea eta herritarren partehartzea bultzatzea** izango da.*

*Arlo berri honen lehen zeregina, **benetako demokrazia partehartzailea sortze ahalbideratuko duen udal ordenantza bat eratzea** izan behar dela uste dugu.*

- *Alderdi politikoen ordezkariatzaz gain, BILDUK batzordeok herritarrentzako zabalik egon beharko lirakekeela uste du, batzorde horietan herritarren partehartzaea bermatuz. Horregatik, batzorde bakoitzean landuko den gaiaren arabera, **BILDUREN PROPOSAMENA HERRIKO TALDE DESBERDINEK, AURRETIK HALA ESKATZEN BADUTE, PARTE HARTU AHAL IZATEA DA.***
- ***Batzordeen deialdia, aktak eta abarreko informazioa herri elkarteetara eta orokorrean herritarrei bidali behar ziela uste dugu.** Udaleko gainontzeko informazio guztia bezala, batzordeen lana eta jardueren berri udalaren webgunean zitzilikatzea eskatzen dugu. Era berean, posta elektronikoko boletina bat sortzea proposatzen dugu herritarrei informazio hori guztia bidaltzeko.*

### Ordezkaritza organo supramunizipalean

- ***Udalaz gaindiko erakundeetan plenoaren ordezkariak izateko behar dela uste dugu.** Beraz, gure proposamena da BILDUK bi ordezkariak izatea GTIk hiru eta PNVk lau."*



**Gatikako udala**  
Bizkaia

**3- Gizarte dirulaguntzak.**

Enif Garcia Torrente, Gatikako Udaleko Gizarte Langileak, aurkeztutako hiru gizarte txostenak (uztailaren 18koak eta ekainaren 16koa irakurri ondoren, proposatzen diren 3 gizarte laguntzak onartu egin dira aho batez.

Bilkura amaituta, agiri hau egin dot lehendakariaren oneritxiagaz, eztabaidatu eta erabagitakoa jasotzeko.